

2020KO MAIATZAREN 11ko OHIKO BILKURA

LEKUA: Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

DATA: Bi Mila eta hogeiko maiatzaren hamaikan.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Iñaki Ugalde Alustiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Asier Aguirre Murguiondo.
Jule Aranburu Mariezkurrena.
Miren Arantza Oiarbide Perez.
Erkuden Aguirre Arruabarrena.
Aitor de Astobiza Uriarte.
Iñaki Zabalo Echezarreta.

EZ BERTARATUTAKOAK:

IDAZKARIA:

Idoia Arévalo Benito.

BATZARRA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehenengoa

HASIERA ORDUA: Arratsaldeko zazpiak eta hamar.

HAMAIERA ORDUA: Arratsaldeko zazpiak eta hogeia.

Alkatetzako gaiak

1.- Aurreko akten onespena.

Lehenik, eta aurreko Bilkurako aktak irakurri ondoren, 2020ko otsailaren 19ko Bilkurari dagokion akta aho batez onartzen da.

2.- Alkatetzaren Ebazpenak.

Jarraian Idazkariak, aurreko ohiko Bilkuraz geroztik egon diren Alkatetzaren Ebazpenen berri ematen du. Honakoak dira:

- 1-2020 alkatetza ebazpena: Urteaga baserrian ganadu ustiaketa instalatzeko obra baimena ematea.
- 2-2020 alkatetza ebazpena: Barbakoa eta egur-labera exekutatzeko obra baimena.

- 3-2020 alkatetza ebazpena: Iberdrolak euskarria egiteko eta lurrerako hartunea egiteko obra baimena.

Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzuak

3.- Mutiloa Bildua 1-B eraikinean dagoen 2-A etxebizitza eta garaje baten esleipena.

2020ko maiatzaren 11an egindako Ohiko Osoko Bilkuran, beste batzuen artean, honako erabaki hau hartu zen kideen legezko gehiengo absolutuz:

- Mutiloa Bildua 1-B eraikinean dagoen 2-A etxebizitza eta garaje baten esleipena

Gaia joan zen batzorde informatzailean azaldu zitzairen udal-kideei.

Mutiloako Udalbatzak, 2020ko otsailaren 19an ospatutako Osoko Bilkuran, Mutiloa bildua 1-B-n kokatua dagoen 2.-A etxebizitza eta garaje bat besterentzeko prozedura hasteko erabakia hartu zuen, besterentzea arautuko zuten oinarrien onarpenarekin batera.

Besterentzearen iragarkia 2020ko martxoaren 3ko (42. Znbk.) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Etxebizitzaren lizitazio prezioa 103.000,00 eurokoa da. Garajearen lizitazio prezioa, 9.000 eurokoa da.

Interesatuak, GAO-n iragarkia argitaratu eta 15 egun naturaleko epea zuten proposamena aurkezteko.

Epe horretan, eskaintza bakar bat aurkeztu zen: María Lourdes Echezarreta Oyarbide andreak eta Jose Manuel Arrieta Lecubide jaunak aurkeztutakoa, 72422426 A eta 15126517 S N.A.N. zenbakidunak, hurrenez-hurren.

2020ko martxoaren 25ean kontratazio mahaia bildu zen eta ondoren adierazten diren erabakiak hartu zituen:

1.- Kontratazio Organoari (Osoko Bilkura), María Lourdes Echezarreta Oyarbide andreak eta Jose Manuel Arrieta Lecubide jaunak egindako eskaintzaren aldeko esleipen proposamena luzatzea.

2.- Udalbatzak, esleipenaren jakinarazpenarekin batera, prezioaren %5eko bermea eskatu beharko

die esleipendunei, besterentzea eskritura publikoan formaldu arte beraien eskaintzari eusteko helburuarekin.

Aurrekoa ikusirik, gaia bozkaten da eta honako erabaki hauek hartzen dira aho-batez:

LEHENENGO: Mutiloa Bildua 1-B eraikinean dagoen 2-A etxebizitza eta garajea María Lourdes Echezarreta Oyarbide andreaki eta Jose Manuel Arrieta Lecubide jaunari esleitzea, eskaintako prezioan:

Etxebizitzaren prezioa: 103.000,00 euro gehi dagozkion zergak.

Garajearen prezioa: 9.000 euro gehi dagozkion zergak.

BIGARREN: Esleipendunei prezioaren %5eko bermea eskatu beharko zaie.

Kontu, Ogasun eta Ekonomia

4.- 3.000 eurotik goragoko fakturen onarpena

Jarraian faktura eta diru-laguntza hauek onesten dira aho-batez:

1	IPARRAGIRRE ERAIKUNTZAK: Garajeak	31.531,05
2	EPEZABAL: atea	7.869,84
3	P3RSEUS: datuen babes zerbitzua	3.091,74
4	GOIMEN 2020ko aportazioa.	3.167,50
	GUZTIRA	45.660,13

Langileria

5.- Zerain-Mutiloa-Zalduondo idazkaritza elkartea onartzea.

Gaia joan zen batzorde informatzailean azaldu zitzaizen udal-kideei.

Otsailaren 19ko Ohiko Osoko Bilkurak, Segura-Zerain-Mutiloa idazkaritza elkartea desegitea adostu zuen.

Oraingoan, hiru Udalen artean adostu ondoren, Zerain-Mutiloa-Zalduondo idazkaritza

elkartearen eraketa proposatzen da.

Lehen pausu bezala, Udal bakoitzak bere Bilkuren bitartez elkartea adostu beharko dute.

Ondorioz, gaia bozkatzen da honako erabaki hau hartuz aho-batez:

LEHENENGOA: Zerain-Mutiloa-Zalduondo idazkaritza elkartearen eraketa adostea.

6.-Galde-erreguak.

Ez daude.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko zazpiak eta hogeirenean eta horren sendespena, nik, Idazkariak egiten dut.